





Koiuntura



DI-DA BATEAN



EAE-KO EKONOMIA

-  EAEko enpresek atzerrian salduz saihestu nahi dute krisia 2 orri.
-  Hirugarren urtez jarraian enplegua galdu da..... 4 orri.
-  Inflazioak 2011ko daturik apalena jaso du 6 orri.
-  Baikortasun neurritsua enpresarien artean 2012. urterako 8 orri.

INGURUNeko EKONOMIA

-  AEBk hazkunde tasa egonkortu dute laugarren hiruhilekoan..... 10 orri.
-  NDFk munduko ekonomiarentzako hazkunde aurreikuspenak gutxitu ditu ... 12 orri.

Ekonomiaren aldagai nagusiak

	2009	2010	2010		2011		
			III	IV	I	II	III
EAE-KO EKONOMIA							
BPG	-3,9	0,3	0,8	0,8	0,9	0,8	0,6
Kontsumo pribatua	-3,9	0,9	1,5	1,3	0,8	0,3	0,9
Kontsumo publikoa	5,0	2,3	3,0	1,5	1,3	1,3	-2,0
Kapital eraketa gordina	-15,2	-6,0	-4,0	-3,1	-1,8	-1,0	-0,2
Barne eskaria	-5,6	-0,5	0,4	0,2	0,3	0,2	0,2
Esportazioak	-13,2	7,6	6,5	10,0	13,3	3,2	12,4
Inportazioak	-14,9	5,5	5,3	8,5	11,6	2,1	11,1
Lehen arloa	-5,5	24,7	51,8	48,2	-13,9	-16,0	-21,6
Industria	-12,7	1,8	3,5	2,8	3,7	3,3	1,5
Eraikuntza	-7,4	-9,8	-9,8	-7,9	-4,6	-5,6	-6,0
Zerbitzuak	-0,1	0,6	0,4	0,5	0,8	1,0	1,3
Balio erantsi gordina	-4,3	0,1	0,6	0,6	1,0	0,9	0,6
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	-0,2	2,0	3,0	2,0	0,0	-0,5	0,3
ESPAINIAKO EKONOMIA							
BPG	-3,7	-0,1	0,4	0,7	0,9	0,8	0,8
Kontsumo pribatua	-4,4	0,7	0,8	0,8	0,5	-0,3	0,4
Kontsumo publikoa	3,7	0,2	0,2	-0,9	0,4	-1,7	-2,3
Kapital finkoaren eraketa gordina	-16,6	-6,3	-5,5	-5,4	-4,9	-5,5	-4,2
- Aktibo finko materialak	-17,2	-6,4	-5,4	-5,4	-5,3	-5,7	-4,5
- Eraikuntzan	-15,4	-10,1	-9,5	-9,3	-9,3	-8,4	-7,4
- Ekipamendu ondasunetan	-22,3	5,1	7,3	5,4	5,6	1,5	2,4
- Aktibo finko inmaterialak	-3,9	-4,8	-7,8	-5,4	1,2	-3,1	0,8
Nazio eskaria (ekarpena)	-6,6	-1,0	-0,7	-0,9	-0,7	-1,7	-1,2
Esportazioak	-10,4	13,5	11,8	14,9	13,9	8,7	8,1
Inportazioak	-17,2	8,9	7,0	8,0	7,1	-0,7	0,8
NAZIOARTEKO EKONOMIA							
BPG							
AEB	-3,5	3,0	3,5	3,1	2,2	1,6	1,5
Japonia	-6,3	4,1	4,9	2,5	-0,6	-1,0	-0,2
Erresuma Batua	-4,4	1,8	2,6	1,3	1,6	0,6	0,5
Europar Batasuna 27	-4,3	1,9	2,4	2,1	2,4	1,7	1,4
Eurogunea 17	-4,2	1,9	2,1	2,0	2,4	1,7	1,4
Alemania	-5,1	3,7	4,0	3,8	4,6	2,9	2,6
Frantzia	-2,7	1,5	1,6	1,4	2,2	1,6	1,6

Iturria: Eurostat, INE eta Eustat.

Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

Legezko gordailua: VI 500/06

ISSN 1887-1534

Laburpena

NDFk, bere azken txostenean, kezka handia erakutsi du munduko ekonomiaren etorkizunaz eta zazpi hamarrenetan jaitsi du urte honetarako espero duen hazkunde tasa. Zuzenketa hori berdin egin du ekonomia garatuetako multzoan zein garapen bidean dauden herrialdeen taldean. Beheranzko berrikusketa horren alderdi gogorrena Euroguneari egokitu zaio, eremu horretarako puntu erdi bateko jaitsiera iragarri baitu urteko batez bestean. Eremu horren barruan, Italiarako eta Espainiarako aurreikuspenak bereziki negatiboak dira, aruten ez ezik 2013. urtean ere beherakadak izango dituztelako BPGren bilakaeran.

2011ko azken hiruhilekoaz informazio gutxi argitaratu da oraindik, baina bat dator analisigileen aurreikuspenekin, Eurogunekoak ez diren herrialde aurreratuek portaera hobea izan dutela adierazten duelako. Hain zuzen ere, AEBek aurreko hiruhilekoetako moteltzea galgatu dute eta bertako BPG %1,6 hazi zen urte arteko tasan, aurreko hiruhilekoko emaitza hamarren batean gaudituz. Antzekoa izan da Erresuma Batuko bilakaera, hirugarren hiruhilekoko gehikuntza tasa bi hamarrenetan hobetu zuelako, urte arteko emaitza %0,8an utzita. Garatzen ari diren herrialdeen artean, Txinak bi hamarrenetan leundu zuen hazkundera (%8,9), baina sendotasun handia erakutsiz berriro.

Espainiari dagokionez, INEren aurrerapenak %0,3an kokatu du laugarren hiruhilabeteko hazkundera, aurreko datua baino puntu erdi bat apalagoa baita, moteltzeko joera garbi bat erakutsiz. Hiruhileko arteko tasan, jaitsiera hiru hamarrenetako izan da, Espainiako Bankuaren txostenak iragarri zuen bezala. Nazio eskariak beherakada areagotu du eta kanpo saldoaren ekarpen handiagoak neurri batean konpentsatu du.

Esparru hurbilago batean, merkataritza ganberek aurtengo igurikimenez argitaratu duten informazioa nabarmendu dugu. Izan ere, EAEko enpresariak beste autonomia erkidegoetakoak baino zertxobait baikorragoak dira, baina Europako enpresarien batez bestera iritsi gabe. Konfiantza dago atzerriko merkatuetan, baina ezkortasuna da nagusi barne merkatuaz galdetzen zaienean, enplegua galduko dela espero baitute. Kanpo merkatuek EAEko enpresetan pizten duten interesa merkataritzako estatistiken emaitzetan ere agerian geratzen da, hala erkidegoen arteko datuetan nola nazioartekoetan. Izan ere, C-Interreg datu baseak adierazten du atzerrian eginiko EAEko salmentak gehiago areagotu direla autonomia erkidegoan bertan edo Espainiako merkatuan eginikoak baino, azken lurralde hauek ez direlako oraindik suspertu.

Azkenik, lan merkatuaren laugarren hiruhilabeteko datuek baieztatu dute enpleguak EAEn okertzeko joerari jarraipena eman diola eta azken urtebetean %1,4 jaitsi dela. Beraz, krisia hasi zenetik 50.000 lanpostu inguru galdu dira. Langabezia tasak gora egin du berriro eta %11,2an kokatu da, Estatu osorako estimatu den baliotik (%22,85) oso behera, baina Eurogunearen batez besteak jaso duena (%10,3) baino zertxobait gorago. Prezioei dagokionez, KPI indizeak lau hamarrenetan gutxitu zuen abenduan bere urte arteko aldakuntza tasa eta %2,4an kokatu zen, urte osoan jasotako mailarik apalena delarik, oraindik erregaien prezio altuek baldintzatuta jarraitzen duen arren. Hala eta guztiz ere, azpiko inflazioa %1,5ean dago, Europako Banku Zentralak ezarri zuen erreferentzia baino puntu erdi bat beherago.

EAEko enpresek atzerrian salduz saihestu nahi dute krisia

Datu base hori etengabe ari da hazten

C-Intereg egitasmoak, Espainiako autonomia erkidegoen arteko merkataritza harremanak aztertzeko sortu baitzen, 2011ko hirugarren hiruhilabeteari dagozkion ondasunen merkataritzako datuak argitaratu ditu eta beraiekin batera 2009ko behin-betiko emaitzak ere eskaini ditu. Azken txostenean, ondasunen barne merkataritzako (erkidegoaren barnekoa gehi erkidegoen artekoa) adierazleen bilakaera hurbilena bildu da, espainiar ekonomia osoarentzat eta egitasmo horretan gaur egun parte hartzen duten hamar autonomia erkidegoentzat. Hala ere, erabilitako metodologiak aukera eman du serie baliokideak eta homogeneoak Espainiako autonomia erkidego guztientzat estimatzeko. Beste aldetik, C-Intereg datu baseak, egitasmo beraren barruan ere, ostalaritza, jatetxeak eta bidaia agentziak biltzen dituzten zerbitzuetako merkataritzako datuak eskaintzen ditu, bai erkidegoaren barrukoak bai erkidegoen artekoak. Zerbitzuei dagokienez, urteko datuak eskaintzen dira eta estimatu diren serieek 2000-2008 epealdia osatzen dute.

2010ean hasitako susperraldia 2011n moteldu zen

Argitaratu den informazioan, eta EAEko ondasunen merkataritza aztertuta, krisiaren eragina oso garbi ikusten da. 2008ko lehen hiruhilekoa arte, merkataritzak etengabeko hazkunde positiboa erakutsi zuen, baina ekonomiaren atzeraldiak eragin bizia izan zuen barne merkataritzan eta jaitsierak 2008ko laugarren hiruhilekotik areagotu ziren. Atzeraldian, bai erkidegoaren barruko merkataritzak bai erkidegoen artekoak beherakada esanguratsua nozitu zuten, bereziki lehenak. 2010. urtean zehar, merkataritzako harremanak sendotu ziren berriro, baina 2011n serietako hazkunde tasak moteltzen hasi ziren eta gero eta txikiagoak dira, barne merkatuak erakusten duen ahultasunarengatik.



EAEko ondasunen salmentak emaitza hobeak izan zituen atzerriko merkatuetan...

Ondasunen barne merkataritzak bizi duen apaltze biziaren ondorioz, merkataritzako fluxuak berregituratzeko urratsak ematen ari dira eta, merkatu hurbilenean aurkitu duten ahultasuna kontuan hartuta, ondasunen helburua atzerriko merkatuetara zuzendu da indar handiagoz. Ekonomiaren gaur eguneko krisiak gehiago kaltetu du Espainia EAEko beste merkataritza bazkide batzuk baino eta, hori dela eta, ekonomia horietako bizitasun handiagoak EAEn eta atzerriaren arteko merkataritza harremanak gehiago haztea ekarri du.

...hirugarren hiruhilekoan %25,5 hazi baitziren urte arteko tasan

Hain zuzen ere, barne merkatua 2010eko amaieran %21,9 areagotu bazen ere, 2011ko hirugarren hiruhilekoan %2,5eko tasa apala jaso zuen, salmenten gehikuntza etengabe ahultzen zelarik. Hala ere, atzerriko salmentez ezagutarazi den informazioa askoz ere positiboagoa da, zeren eta azken sei hiruhilekoetatik bostetan %15etik gorako urte arteko gehikuntza tasak erakutsi dituelako, 2011ko hirugarren hiruhilabeteko tasa %25,5ean zegoelarik. Azpimarratzeko moduko emaitza ona da hori. Izan ere, hiruhileko horretan, lehen aldiz, atzerrian saldutakoak gainontzeko autonomia erkidegoetan saldutakoa gainditu zuen.

EAE-KO EKONOMIA

Salmentak barne merkatuan
Urteko tasa leunduaSalmentak atzerrian
Urteko tasa leundua

EAE-KO ONDASUNEN MERKATARITZA. MERKATUEN ARABERAKO BANAKETA

Milioi euroak

	EAEn bertan	Non saltzen da:		Non erosten da:	
		Espainia	Atzerria	Espainia	Atzerria
95-00 batez b.	6.590	13.386	8.965	11.754	7.118
01-08 batez b.	11.410	21.680	14.686	16.368	14.283
2009-I	2.069	4.522	3.804	3.742	3.052
2009-II	2.242	4.646	3.942	4.132	2.973
2009-III	2.111	4.261	3.476	3.221	3.010
2009-IV	2.368	4.688	3.721	3.319	3.258
2009	8.790	18.117	14.942	14.413	12.294
2010-I	2.793	5.936	3.787	4.701	3.364
2010-II	2.653	5.694	4.915	4.934	4.111
2010-III	2.476	5.157	4.194	4.270	3.721
2010-IV	2.593	5.990	4.649	4.461	4.061
2010	10.514	22.777	17.545	18.367	15.257
2011-I	2.844	7.156	4.984	4.910	4.467
2011-II	2.756	6.386	5.020	4.452	4.540
2011-III	2.722	5.153	5.261	4.244	4.146

Iturria: C-Intereg datu basea.

Hirugarren urtez jarraian enplegua galdu da

Hiru urtean 50.000 lanpostu inguru galdu dira EAEn

Urtarrilean, lan merkatua aztertzeko egiten diren bi inkesta nagusietako datuak argitaratu dira eta biak bat datoz 2011ko laugarren hiruhilekoan EAEn landunen kopuruak beste beherakada handi bat, %1,5aren ingurukoa, pairatu zuela adieraztean. Horren ondorioz, urteko batez bestean, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan 938.000 landun inguru zeuden, hots, aurreko urtean zeudenak baino 11.000 gutxiago. Halaber, narriadura hori biziagoa izan zen urteko bigarren erdian, ekonomia errealean agertu ziren arazoak lan merkatura iristen ziren heinean. Beraz, dagoeneko hiru urtez jarraian gutxitu da lana dutenen kopurua eta epealdi horretan EAEn 50.000 lanpostu inguru galdu dira.

Galdutako lanpostu gehienak industrian eta eraikuntzan zeuden

Enpleguaren galera, Eustaten datuek argitzen dutenez, industrian eta eraikuntzan gauzatu dira, hurrenez hurren, 28.700 eta 15.600 landun galdu baitituzte 2008-2011 epealdian. Bi zenbateko horiei gehitu behar zaie lehen arloan galdu diren 4.300 lanpostutik gorakoak, lan horiek alboratzeko hainbat hamarkadatan bizi den egiturazko prozesu luze batean. Atzeraldiak gutxien kaltetu duen arloa zerbitzuetakoa da, nahiz eta azken urtebetean arlo horrek ere narriadura bat izan duen. Krisiak sektore batzuetan besteetan baino eragin handiagoa izateak argitzen du zergatik galdu diren lanpostu ia guztiak gizonen betetzen zituzten, industrian eta eraikuntzan gizonen batez ere lan egiten dutelako. Aitzitik, emakume landunen kopurua serie historikoaren balio gorenetan kokatu da.

Emakumeek gero eta gehiago hartzen dute parte lan merkatuan


Emakumeek lan merkatuan aurkitu dituzten aukerek lan munduan duten partaidetza areagotu dute. Izan ere, aipatu diren hiru urte horietako epean lanpostu bat lortu nahi zuten emakumeen kopurua 31.600 pertsonatan handitu da. Aitzitik, epealdi berean gizonen partaidetza 5.600 lagunetan murriztu da.

Langabezia tasa azken hamarkadako altuena da eta dagoeneko %11,2an dago


Biztanleria aktiboaren igoerak eta lanpostuen jaitsierak oso nabarmen igoarazi dute langabezia azken hiru urtean. Hain zuzen ere, eta beti Eustatek BJA inkestan argitaratu dituen datuei erreparatuta, 2011. urtean krisia hasi zenean baino 75.500 langabe gehiago zeuden. Lanik gabe daudenen kolektiboa dagoeneko 114.000 pertsonak baino gehiagok osatzen dute. Langabeziak bi sexuak kaltetu dituen arren, oso bestelakoak dira batean eta bestean ikusten diren igoeraren arrazoiak. Izan ere, azken hiru urtean langabeen zenbatekoa igoarazi duten 44.900 gizon ia guztiak desagertu diren lanpostuetatik iritsi dira. Aitzitik, emakumeen kasuan lan merkatuan parte hartzeko prozesuak eragin du langabeziaren igoera. Gizonen partaidetza tasa berdintzeko oraindik denbora beharko dute emakumeek. Azkenik, langabezia tasa 2008ko hasierako %3,3tik 2011ko amaierako %11,2 igo da. Azken hau hamarkada oso batean jaso den altuena da. Bereziki larria da gazteen artean dagoen langabezia tasa (%24,2), batez bestea halako bi baino gehiago delako.

EAE-KO EKONOMIA


Biztanleria aktiboa (BJA)




Biztanleria aktiboa (BAI)




Landunak (BJA)




Landunak (BAI)



Langabezia tasa (BJA)



Langabezia tasa (BAI)



Iturria: Eustat eta INE.

Inflazioak 2011ko daturik apalena jaso du

KPIk %2,4ra moteldu zen abenduan

INEk argitaratu dituen datuen arabera, kontsumoko prezioen indizearen urte arteko tasa lau hamarrenetan gutxitu zen Euskal Autonomia Erkidegoan abenduan eta %2,4an kokatu zen, hots, urte osoan zehar izan duen mailarik apalenean. Beraz, indize orokorrak apirilean hasi zuen eta irailean bakarrik eten zen moteltzeko prozesuak aurrera jarraitu du. Are gehiago, abenduan jaso zen lau hamarrenetako jaitsiera 2009ko maiatzetik, hileko horretan zazpi hamarrenetan moteldu baitzen, inoiz eskuratu den handiena da.

Erregaien eta tabakoaren bilakaerak jaitsiera horretan lagundu zuen

Abenduko apaltze horren jatorria energiako ekoizkinen eta tabakoaren salneurrien moteltzean dago, bi kasuetan maila efektua gertatu baita, hau da, 2010eko abenduan bi produktu horietako prezioetan igoera garrantzitsuak (%14,6 energian eta %21,4 tabakoan) gertatu ziren bitartean, urtebete bat geroago bi talde horietako garestitzeak askoz txikiagoak izan ziren, goranzko efektu hori neurri batean desagerraraziz. Hala eta guztiz ere, energiako produktuen igoera oso handia izan zen oraindik (%10,3), petrolioaren salneurriak izan zuen bilakaerarengatik. Aurreko guztiari gehitu behar zaio kontsumoak 2011ko azken hilabeteetan erakutsi zuen makaltasunak ekoizkin askoren prezioak doitzen lagundu duela.

Eurogunearikiko inflazio tartearen aldekoa da


KPI indizeak 2011ko azken zatian erakutsi duen moteltzeak Eurogunearikiko inflazio tartearen aldekoa da hiru hamarrenetan eta azpiko inflazioarena bost hamarrenetan kokatzea ahalbidetu zuen, bi kasuetan Euskal Autonomia Erkidegoaren alde. Emaitza horrek eragin positiborik izan dezake lehiakortasunean, kanpora begira, eta soldaten negoziazioaren igoera txikiagoetan, barrura begira. Gogoratu behar da aurreko urteko inflazio tasa dela oraindik lan hitzarmenetan adosten diren soldaten igoerak erabakitzeke orduan gehien erabiltzen den erreferentzietako bat, bereziki urte batzuetarako diren hitzarmenetan.

Produktu talde batzuek oso igoera txikiak eta baita jaitsierak ere jaso dituzte


Abenduko moteltzean eragin handiena izan zuten ekoizkin taldeak edari alkoholodunak eta tabakoa, eta garraioa izan ziren. Lehenengo taldeari dagokionez, honek %3,9ko urte arteko tasa aurkeztu zuen, azaroan izan zuena baino sei puntu txikiagoa baita, 2011ko abenduan tabakoaren salneurria aldaketarik gabe geratu zelako, 2010eko abenduan garestitze handia izan zuen bitartean. Garraioak, berriz, %4,7an kokatu zuen bere urte arteko tasa, aurreko hilabeteko emaitza 2,1 puntutan jaitsiz, erregaiak gutxiago garestitu zirelako. Inflazio tasa altuena duten taldeen artean, etxebizitzak bakarrik utzi zuen bere horretan urte arteko tasa (%7,0). Beste muturrean, oraindik prezio jaitsierak gertatu dira medikuntzan (%-2,2), botika generikoak gero eta gehiago erabiltzen direlako, eta komunikazioetan (%-1,6). Orobat, jantziak eta oinetakoetan (%0,3) eta aisia eta kulturaren (%0,6) urte arteko aldakuntza tasak oso mugatuak izan dira berriro, eskari ahuleko une bati dagokion moduan.

EAE-KO EKONOMIA


KPI indize orokorra
Urte arteko aldakuntza tasa




KPI azpiko inflazioa
Urte arteko aldakuntza tasa



KPI hondar inflazioa
Urte arteko aldakuntza tasa



KPI talde nagusiak
Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: INE.

Baikortasun neurritsua enpresarien artean 2012. urterako

Baikortasun handiagoa Europako enpresetan

Euroganberek enpresarien igurikimenez argitaratzen duten inkestak espainiar enpresariak baikortasuna zertxobait berreskuratu dutela 2012. urteari begira erakusten du, aurreko urteko emaitzarekin alderatuta. Inkesta horretan estimatu diren datuen arabera, EAeko egoera Estatuko batez bestearena baino hobea da, baina bai gure autonomia erkidegoan bai Estatuan Europar Batasuneko batez bestean baino ezkortasun handiagoa dago. Termino orokorretan, Europar Batasuneko enpresek 2011koa bezalako testuinguru ekonomiko bat espero dute, zeinean esportazioek ekonomiaren hazkundera goraraziko baitute. Inbertsioak eta enpleguak iaz zutenaren antzeko mailan jarraituko dute aurten ere.

Lan merkatuaren narriadurak jarraituko du

Espainiako enpresek suspertzeko prozesua astiro gauzatuko dela 2012an iragartzen dute, eta zutabe nagusia esportazioak izango direla. Emaitza horrek bizitasun handiagoa aurreratzen du nazioarteko merkatuetan. Hala eta guztiz ere, barne merkaturako aurreikuspenek, hala salmentetan nola enpleguan eta inbertsioan, negatiboak izaten jarraituko dute. Espainia da lan eskua gutxituko duen Europako herrialdeetako bat, aurreikuspen horien arabera.

Barne eskariak ez du lagunduko ekonomiaren hazkunderan


Merkataritza Ganberek 2012ko urtarrilari dagokion enpresarien konfiantza indizea (EKI) ere argitaratu dute. Adierazle horrek igoera garrantzitsu bat erakutsi zuen aurreko hiru hilabeteetan jasotako emaitzaren aldean. EKI indizearen balioa -14,2an kokatu zen, 2011ko azken hiruhilabetearen inkestaren emaitza baino ia bost puntu gorago. Hala ere, eta hoberantz egin zuen arren, enpresa ezkorren ehunekoak aise gainditzen du enpresa baikorren kopurua. Oraindik gehiengoa dira negozio zifra, inbertsioa eta kontratatutako langileak beren enpresetan gutxituko direla uste duten enpresariak. Enpresaren jardueraren garapena mugatzen eta galarazten duten faktoreak zerrendatzeko orduan, aipatzen den eragozpen handiena Espainiako barne eskariaren ahultasun sakona da, ondoren finantzazioa lortzeko dauden zailtasunak eta lehia gero eta handiagoa agertzen direlarik.

Enpresek atzerriko ekonomietan jarri dute itxaropena


EKI indizea sektoreka aztertzen denean, garbi geratzen da jarduera adar guztiek konfiantza adierazlea hobetu dutela, salbuespen bakarra industria delarik. Industriaren jaitziera negozio zifraz duten aurreikuspenak beherantz zuzendu izatean oinarritu da. Beste alde batetik, eraikuntzan jaso diren zenbatekoak ez dira aurreko inkestan eskuratu zirenak bezain negatiboak. Azkenik, portaera onena zerbitzuek eskaini dute. Hala telekomunikazioak, aisia eta garraioa biltzen dituen taldeak nola ostalaritza eta turismoko enpresenak baikortasun handiagoa erakutsi dute 2012. urterako. Merkataritzako adarra bakarrik mantendu da egonkor konfiantza adierazlea osatzen duten osagaien ataletan. Beste behin ere, aurreikuspenek hobera egin dute kanpo arloan duten konfiantzari esker.

EAE-KO EKONOMIA


Enpresarien konfiantza indizea - Espainia




Enpresarien aurreikuspenak Espainian



Enpresarien aurreikuspenak European



**Erkidegoen 2012ko sailkapena
Negozio zifraren gaineko aurreikuspenak**



Iturria: Merkataritza Ganberak.

AEBk hazkunde tasa egonkortu dute laugarren hiruhilekoan

Finantza arloko egoerak laugarren hiruhilekoa markatu zuen

Munduko ekonomiaren panoraman, Eurogunearen egoera zailak markatu zuen 2011ko laugarren hiruhilekoa, ekonomia globalaren tentsioak areagotu zituelako. Testuinguru horretan, finantza arloko ezegonkortasun giroa gaiztotu zen, arriskuak saihesteko nahia nabarmen handitu zen nazioarteko finantza merkatu guztietan eta hazkunderako aurreikuspenak beherantz zuzendu ziren.

Espainia %0,3 baino ez zen hazi eta Erresuma Batuak %0,8 areagotu zuen bere produktua

Gaur arte argitaratu diren datu ekonomiko apurrek portaera ezberdina erakusten dute ekonomia aurreratuen artean. Alde batetik, AEBetan seinale positibo batzuk agertu dira, berriro atzeraldian sartzeko aukera urrundu dutenak. Aitzitik, Espainiako egoera eta, neurri txikiagoan, Erresuma Batuarena kezagarriagoak dira. Izan ere, INEren lehen estimazioen arabera, Espainia %0,3 hazi zen 2011ko azken hilekoetan, aurreko hiruhilekoko emaitza baino puntu erdi bat gutxiago baita. Erresuma Batuak, berriz, %0,8ko gehikuntza lortu zuen. Tasa hori oso sendoa ez bada ere, 2010eko erdialdetik ezagutu duen beherantzko joerari amaiera emateko balio izan zuen.

AEBetako adierazleek berriro jaisteko aukera urrundu dute


AEBetarako emaitzek hobera egingo zutela espero zen, eta horixe adierazi dute berriki argitaratu diren datuek. Beraietan, estatubatuar ekonomia nahiko sendo dagoela ikusten da, bere barne produktu gordinaren hazkunde tasa %1,6an finkatzea lortu duena. Tasa hori hirugarren hiruhilekoan jaso zen %1,5 baino zertxobait handiagoa da eta 2011ko bigarren hiruhilekoan lortu zuen emaitza berdindu du. Hala ere, hazkundearen osaera ezberdina da. Izan ere, ekonomiaren krisia hasi eta lehen hiruhilekoetan, BPGren hazkundea bereziki gastu eta inbertsio publikoan oinarritu zen, kontsumo eta inbertsio pribatuak uzkurtuta egon ziren bitartean. Baina une hauetan joerak aldatu dira eta arlo pribatua txanda bereganatzen ari da. Kontsumitzailearen konfiantza indizeak (Conference Board) hobekuntza garrantzitsua erakutsi zuen eta etxegintzan eginiko inbertsioak, hiru urte luzez tasa negatibotan murgilduta egon ondoren, hazkunde positiboak berreskuratu zituen. Are gehiago, lan merkatuak, AEBetako susperraldia eragozten zen faktore nagusia baitzen, langabeen kopurua murriztea lortu zuen eta langabezia tasa, abenduan, %8,5era jaitsarazi zuen, 2009ko otsailetik jaso duen tasa apalena baita. Aurreko guztiak bide eman zion arlo pribatuari ekonomia jardueraren bultzagile nagusiaren papera bereganatzeko eta arlo publikoaren ekarpenak gutxitzeko.

Txinak %8,9ko hazkunde tasa lortu zuen urte amaieran


Garapen bidean dauden herrialdeetan, berriz, moteltze kontrolatua izan da ezaugarri nagusia. Zehazkiago, Txina %8,9 hazi zen 2011ko azken hiruhilekoan. Gehikuntza tasa hori azken hamar hiruhilekoetako txikiena da, baina horri esker urteko batez besteko hazkundea %9,2ra iritsi da. Apaltzeko joera krisi globalari, esportazioen bultzada murriztu zuelako, eta gobernuak inflazioa gutxitzeko onartu zituen neurriei zor zaie.

INGURUNeko EKONOMIA


Espainiako BPGren bilakaera




Erresuma Batuko BPGren bilakaera



AEBetako BPGren bilakaera



Txinako BPGren bilakaera



Iturria: INE, UK National Statistics, BEA eta Txinako Bankua.

AEB-ETAKO TAULA MAKROEKONOMIKOA

	2010. IV	2010	2011.I	2011.II	2011.III	2011.IV	2011
BPG	3,1	3,0	2,2	1,6	1,5	1,6	1,7
Kontsumo pribatua	3,0	2,0	2,8	2,2	2,0	1,6	2,2
Inbertsio pribatua etxegintzan	-6,3	-4,3	-2,9	-6,9	1,4	3,4	-1,4
Kontsumo eta inbertsio publikoa	0,1	0,7	-1,1	-2,2	-2,4	-2,9	-2,1
Esportazioak	8,8	11,3	8,9	7,3	6,0	5,2	6,8
Inportazioak	10,7	12,5	9,6	4,8	2,1	3,8	5,0
KPI	1,3	1,6	2,1	3,4	3,8	3,3	3,2
Langabezia tasa	9,6	9,6	8,9	9,1	9,1	8,7	9,0

Iturria: BEA.

NDFk munduko ekonomiarentzako hazkunde aurreikuspenak gutxitu ditu

NDFren arabera, munduko ekonomia %3,3 haziko da 2012an eta %3,9 2013an

Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) urtarrilean argitaratu du munduko ekonomiaz prestatu dituen aurreikuspenak. Txosten horretan oso nabarmen murriztu ditu ekonomia nagusi guztientzat estimatzen dituen hazkunde tasak. Hain zuzen ere, NDFren arabera, munduko ekonomia %3,3 haziko da 2012. urtean, iraileko txostenean iragarri zuena baino zazpi hamarren gutxiago, eta %3,9ko gehikuntza tasa espero du 2013. urterako, aurreko aurreikuspena sei hamarrenetan jaitsiz. Aurreko aurreikuspenetan ez bezala, oraingo honetan berdin beheratu ditu herrialde aurreratuetako eta garapen bidean dauden ekonomietako hazkunde tasak, zeren eta 2012rako bi eremu horietako BPG zazpi hamarrenetan gutxitu baitu. Hala eta guztiz ere, garatzen ari diren ekonomien hazkunde tasak oraindik ekonomia garatuetakoa baino askoz ere handiagoak izango dira.

Herrialde aurreratuak %1,2 haziko dira, baina Euroguneak behera egingo du

Horiek horrela, herrialde aurreratuen multzoa aurten %1,2 haziko dela espero da. Beraz, oraingoz, ekonomia berriro atzeraldian sartuko delako ideia baztertuta dago. Hala ere, Euroguneke egoera oso zaila izango da. Izan ere, ekonomia eremu horrek aurten %0,5eko jaitsiera jasoko duela estimatu dute, eta atzeraldia pairatuko du, bonu subiranoetako interes tasak igo direlako, bankuen zorgabetzeak ekonomia errealean eragin kaltegarriak izango dituelako eta defizit publikoa gehiago murrizteak ondorioak ekarriko dituelako. Beheranzko doikuntza Euroguneke herrialde nagusi guztietara hedatzen da, baina Italiak eta Espainiak jaitsiera handienak izan dituzte. Are gehiago, bi ekonomia horiek atzeraldian jarraituko dute 2013an ere, ordurako NDFk Eurogunean hazkunde positiboak espero dituen arren.

Azaleratzen ari diren herrialdeak ere gehikuntza tasa txikiagoak jasoko dituzte


Beste aldetik, garatzen ari diren herrialdeek ere finantza merkatuetako ezegonkortasuna eta ziurgabetasuna nabarituko dute eta baita barne eskarien ekarpen txikiago bat ere. Horren ondorioz, azken urteetakoa baino hazkunde tasa txikiagoak lortuko dituzte. Hain zuzen ere, 2012-2013 epealdian, garapen bidean dauden herrialdeak, batez beste, %5,65 haziko direla espero da, 2010-2011 biurtekoan lortu zuten %7aren inguruko mailaren aldean erritmo galera nabarmena delarik. Berriro ere, Txina eta India nabarmendu behar dira, eremu horretako jardueraren bultzatzaile nagusiak izango direlako, bi herrialdeek %7,0tik gorako hazkunde tasa lortuko baitituzte.

Neurri politikoak beharko dira hazkundea sustatzeko


Finantza sistema ahuleko, defizit eta zor publikoko maila altuko eta zerotik hurbil dauden interes tasa apaletako testuinguru horretan, NDFk hazkunde bultzatuko duten politika neurri erabakigarriak eta koherenteak premiaz har daitezela eskatzen du. Horretarako bere proposamenak honakoak dira: doikuntza fiskal iraunkorra baino mailaz mailakoa, likidezia handia eta moneta politika hedakorra (batez ere ekonomia aurreratuetan), bankuetako zorgabetzea, eta agintariak ekintzak bideratzeko duten gaitasunean konfiantza berreskuratzea.

EAE-KO EKONOMIA


Munduko BPGren bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasa




Ekonomia aurreratuetako BPGren bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasa



Garatzen ari diren ekonomietako BPGren bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasa



Garatzen ari diren Asiako ekonomietako BPG
Urte arteko aldakuntza tasa



NDF-REN EKONOMIA AURREIKUSPENA

	Oraingoa			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2011	2012	2013	2012	2013
Munduko ekonomia	3,8	3,3	3,9	-0,7	-0,6
Ekonomia garatuak	1,6	1,2	1,9	-0,7	-0,5
AEB	1,8	1,8	2,2	0,0	-0,3
Eurogunea	1,6	-0,5	0,8	-1,6	-0,7
Alemania	3,0	0,3	1,5	-1,0	0,0
Frantzia	1,6	0,2	1,0	-1,2	-0,9
Italia	0,4	-2,2	-0,6	-2,5	-1,1
Espainia	0,7	-1,7	-0,3	-2,8	-2,1
Japonia	-0,9	1,7	1,6	-0,6	-0,4
Garatzen ari diren herrialdeak	6,2	5,4	5,9	-0,7	-0,6
Txina	9,2	8,2	8,8	-0,8	-0,7
India	7,4	7,0	7,3	-0,5	-0,8

Iturria: NDF. Munduko ekonomiaren aurreikuspenak.

EAEko ekonomiaren adierazle nagusiak

	2008	2009	2010	Azken datua	Urte artekoa
JARDUERA					
IPI	-3,4	-20,9	1,8	11ko azaroa	-3,8
- Bitarteko ondasunak	-5,0	-25,2	6,7	11ko azaroa	-5,3
- Ekipamendurako ondasunak.....	-2,3	-25,1	-1,5	11ko azaroa	4,7
- Kontsumoko ondasunak.....	-7,3	-12,1	1,7	11ko azaroa	-14,0
- Energia	5,0	-6,5	-4,7	11ko azaroa	-20,8
Industria jardueraren indizea (IJI)(*)	1,1	-21,7	7,5	11ko abendua	-6,5
Ekoiizteko ahalmenaren erabilera (%)(*) .	82,6	67,3	69,8	11ko IV hiru	69,1
Eskari zorroa(*)	-15,7	-73,4	-53,2	11ko abendua	-36,8
Industria giroaren indizea	-14,7	-49,5	-20,3	11ko abendua	-15,0
Etxebizitza librean salneurria €/m ²	2.995,9	2.782,3	2.660,3	11ko III hiru	-1,7
Salmenten indizea prezio iraunkorretan					
Azalera handikoak prezio iraunkorretan	-4,9	-0,3	0,0	11ko abendua	-6,3
BMI guztira prezio iraunkorretan	-4,4	-10,9	2,8	11ko III hiru	-1,0
BMI txikizkako prezio iraunkorretan	-3,2	-4,4	-0,3	11ko III hiru	-2,5
Esportazioak					
Energiaz bestelakoak	6,3	-26,3	17,4	11ko III hiru	25,5
Energiaz bestelakoak	4,9	-25,9	17,3	11ko III hiru	27,3
Inportazioak					
Energiaz bestelakoak	6,4	-38,9	24,1	11ko III hiru	11,5
Energiaz bestelakoak	-0,8	-38,2	23,8	11ko III hiru	12,3
Turismoen matrikulazioak					
Zamaketarako ibilgailuen matrikulazioa	-22,6	1,7	-3,1	11ko abendua	1,5
Zamaketarako ibilgailuen matrikulazioa	-41,2	-39,6	0,5	11ko abendua	-45,8
Aireko trafikoa					
Hoteletan igarotako gualdiak	-5,6	-13,5	5,3	11ko abendua	9,1
Hoteletan igarotako gualdiak	-4,2	-1,2	17,1	11ko abendua	-0,3
LAN KOSTUAK					
Soldaten igoera:					
- Indarrean dauden hitzarmenak.....	5,0	2,7	1,9	11ko azaroa	3,6
- Urtean zehar sinatutakoak	4,8	2,8	1,7	11ko azaroa	3,3
Lan kostuak					
- Kostu guztiak	4,7	2,8	1,4	11ko III hiru	2,5
- Soldata kostu guztiak	5,8	2,8	2,0	11ko III hiru	0,7
- Bestelako kostuak.....	1,7	2,8	0,4	11ko III hiru	8,0

(*) Baliaok.

Iturria: Eustat, Iberdrola, Lan Harremanen Kontseilua, Trafiko Zuzendaritza Nagusia, Oficemen, Ekonomia eta Ogasun Ministerioa, INE eta Aduana eta Zerga Bereziakotako Saila eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.

EAEko ekonomiaren aldagai nagusiak

	2009	2010	2011	Azken datua	Urte arteko tasa
PREZIOAK					
KPI indize orokorra:	0,3	1,7	3,1	11ko abendua	2,4
- Azpiko inflazioa	1,1	0,7	1,8	11ko abendua	1,5
- Hondar inflazioa	-3,6	6,6	9,5	11ko abendua	6,5
EBrekiko aldea	-0,7	-0,3	0,0	11ko abendua	-0,6
IPRI	-6,0	3,3	7,6	11ko abendua	4,8
- Bitarteko ondasunak.....	-7,9	3,1	6,1	11ko abendua	1,8
- Kontsumoko ondasunak.....	0,5	0,2	2,4	11ko abendua	1,8
- Ekipamendurako ondasunak	1,3	0,1	2,1	11ko abendua	2,1
- Energia	-14,6	11,7	21,9	11ko abendua	17,6
LAN MERKATUA					
BJA					
Parte hartzaileak	1,0	0,9	0,7	11ko IV hiru	-0,1
Partaidetza tasa.....	55,6	55,9	56,2	11ko IV hiru	55,8
Landunak	-3,6	-0,3	-1,2	11ko IV hiru	-1,4
Enplegu tasa guztira	51,0	50,8	50,1	11ko IV hiru	49,5
Gizonen enplegu tasa	58,6	57,8	56,1	11ko IV hiru	54,9
Emakumeen enplegu tasa.....	43,9	44,2	44,4	11ko IV hiru	44,4
Langabezia tasa guztira	8,1	9,2	10,8	11ko IV hiru	11,2
Gizonen langabezia tasa	8,4	9,6	11,3	11ko IV hiru	12,1
Emakumeen langabezia tasa	7,8	8,6	10,3	11ko IV hiru	10,1
Gazteen langabezia tasa.....	23,0	25,1	24,0	11ko IV hiru	24,2
BAI (*)					
Parte hartzaileak	-1,5	0,2	0,9	11ko IV hiru	0,4
Landunak	-6,4	0,7	-0,8	11ko IV hiru	-1,5
Langabezia tasa.....	11,0	10,5	12,0	11ko IV hiru	12,6
INEM					
Langabeak	42,4	9,9	9,7	11ko abendua	6,9
GIZARTE SEGURANTZA					
Afiliatuak	-3,5	-1,0	-0,6	11ko abendua	-1,0

(*) 2005eko lehen hiruhilekoan, BIA inkestan galdesorta berri bat eta datuak biltzeko beste modu bat erabiltzen hasi ziren. Horrek eragina izan dezake aurreko hiruhilabetearekiko eta aurreko urteko datuarekiko alderaketan.

Iturria: Eustat, INE, Gizarte Segurantzza eta INEM

Euskal Autonomia Erkidegorako aurreikuspenak

	BPG		Industria		Eraikuntza		Zerbitzuak		BEG	
	2011	2012	2011	2012	2011	2012	2011	2012	2011	2012
Eusko Jaurjaritza (2011-12)	0,7	0,7	2,3	2,1	-5,4	-4,2	1,0	0,9	0,7	0,7
Hispalink (2011-06)	---	---	2,1	1,9	-3,8	-1,6	1,4	1,6	1,1	1,4
FUNCAS (2011-12)	1,1	-0,1	2,0	0,4	-3,0	-4,9	1,1	0,2	---	---
Confebask (2011-12)	0,7	0,4	2,3	1,4	-5,2	-4,8	1,0	0,8	---	---
Euskadiko Kutxa (2011-09)	0,9	---	3,2	---	-5,2	---	0,6	---	---	---
BBVA (2011-11)	0,9	1,2	---	---	---	---	---	---	---	---

	Kontsumo pribatua		Kontsumo publikoa		Inbertsioa guztira		Barne eskaria (*)		Kanpo saldoa (*)	
	2011	2012	2011	2012	2011	2012	2011	2012	2011	2012
Eusko Jaurjaritza (2011-12)	0,6	0,7	-0,3	-0,3	-0,7	0,6	0,2	0,5	0,5	0,2
Confebask (2011-12)	0,6	-0,1	0,2	0,0	-1,3	-0,5	0,1	-0,2	0,6	0,6
Euskadiko Kutxa (2011-09)	0,8	---	1,5	---	-2,3	---	0,1	---	0,8	---

(*) BPGren hazkundeari eginiko ekarpena.

Iturria: FUNCAS, Hispalink, Confebask, Euskadiko Kutxa, Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza eta Eustat

EA Erako hiruhilabetekako aurreikuspenak (2011ko abendua)

	2011	2011	2012				2012
	IV		I	II	III	IV	
BPG (m.p.)	0,4	0,7	0,4	0,5	0,7	1,0	0,7
Barneko azken kontsumoa	0,0	0,4	0,0	0,3	0,6	0,8	0,4
Familien kontsumoa	0,4	0,6	0,4	0,6	0,7	0,9	0,7
Administrazioaren kontsumoa	-1,7	-0,3	-1,4	-0,9	0,3	0,8	-0,3
Kapital eraketa gordina	0,1	-0,7	0,2	0,5	0,7	0,8	0,6
Barne eskariaren ekarpena	0,1	0,2	0,2	0,3	0,6	0,8	0,5
Kanpo arloaren ekarpena	0,3	0,5	0,2	0,1	0,1	0,2	0,2
Lehen arloa	4,6	-11,7	-1,1	-20,7	-19,3	-17,0	-14,5
Industria	0,7	2,3	1,1	2,0	2,4	3,0	2,1
Eraikuntza	-5,5	-5,4	-5,4	-4,5	-3,8	-3,0	-4,2
Zerbitzuak	0,8	1,0	0,8	0,9	1,0	1,0	0,9
Balio erantsi gordina	0,3	0,7	0,4	0,6	0,8	1,0	0,7
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	0,3	0,1	0,4	0,6	0,5	0,5	0,5

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

Espainiako ekonomiarentzat eginiko aurreikuspenak

	BPG			BPG	
	2011	2012		2011	2012
AFI	0,7	0,0	Intermoney	0,7	-0,4
BBVA	0,8	1,0	La Caixa	0,7	0,2
Bankia	0,7	0,0	Repsol	0,7	-0,2
Catalunyacaixa	0,7	0,1	Santander	0,7	0,9
Cemex	0,7	0,0	BATEZ BESTEA	0,7	0,2
CEPREDE-UAM	0,6	0,8	Gobernua (2011-04)	1,3	2,3
FUNCAS	0,7	-0,5	Espainiako bankua (2012-01)	0,7	-1,5
ICAE-UCM	0,8	-0,3	E. Batzordea (2011-11)	0,7	0,7
IEE	0,7	-0,1	NDF (2012-01)	0,7	-1,7
IFL-UC3M	0,8	0,3	ELGE (2011-11)	0,7	0,3

Iturria: FUNCAS, Ekonomia eta Ogasun Ministerioa, CEPREDE, ELGE, NDF eta Europar Batzordea.

AFI: Analistas Financieros Internacionales; ICAE-UCM: Instituto Complutense de Análisis Económicos-Madrileko Unibertsitate Konplutentse; ICO: Instituto de Crédito Oficial; IEE: Instituto de Estudios Económicos; IFL-UC3M: Flores de Lemus Institutua-Carlos III Unibertsitatea Madril; NDF: Nazioarteko Diru Funtza; E. Batzordea: Europar Batzordea; NDF: Nazioarteko Diru Funtza; ELGE: Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea.

Hiruhilabetetako aurreikuspenak Espainiako ekonomiarentzat

	2011	2011	2012				2012
	IV		I	II	III	IV	
BPG	0,4	0,6	0,4	0,6	1,0	1,1	0,8
Kontsumo pribatua	0,6	0,4	0,7	0,8	1,0	1,0	0,9
Kontsumo publikoa	-3,7	-1,4	-2,0	-1,1	-0,1	-0,2	-0,9
Kapital finkoaren eraketa gordina	-1,5	-4,4	-0,9	-0,3	0,1	0,3	-0,2
- Inbertsioa ekipamenduan	2,9	0,4	2,1	1,7	2,0	2,0	1,9
- Inbertsioa beste produktuetan	-4,1	-7,7	-2,9	-2,0	-1,4	-1,2	-1,9
- Inbertsioa eraikuntzan	0,0	-1,2	0,8	1,7	2,0	2,2	1,7
Barne eskari erreala	-0,5	-0,9	-0,2	0,1	0,5	0,6	0,3
Esportazioak	5,6	8,1	4,0	4,3	4,3	4,5	4,2
Inportazioak	1,3	1,6	1,3	2,2	2,5	2,8	2,2

Iturria: CEPREDE.

Nazioarteko ekonomiari buruzko aurreikuspenak

Herrialdea edo eremua	Erakundea	Aurreikuspenaren data	2011		2012	
			Azkena	Aurrekoa	Azkena	Aurrekoa
AEB	The Economist	2012ko urtarrila	1,7	1,8	2,0	1,9
	Consensus Forecast	2011ko abendua	1,7	1,8	2,1	2,1
	ELGE	2011ko azaroa	1,7	2,6	2,0	3,1
	NDF	2012ko urtarrila	1,8	1,5	1,8	1,8
	Europar Batzordea	2011ko azaroa	1,6	2,6	1,5	2,7
Japonia	The Economist	2012ko urtarrila	-0,6	-0,3	1,7	2,0
	Consensus Forecast	2011ko abendua	-0,6	-0,4	2,0	2,1
	ELGE	2011ko azaroa	-0,3	-0,9	2,0	2,2
	NDF	2012ko urtarrila	-0,9	-0,5	1,7	2,3
	Europar Batzordea	2011ko azaroa	-0,4	0,5	1,8	1,6
Erresuma Batua	The Economist	2012ko urtarrila	0,9	0,9	0,2	0,6
	Consensus Forecast	2011ko abendua	0,9	1,0	0,7	1,1
	ELGE	2011ko azaroa	0,9	1,4	0,5	1,8
	NDF	2012ko urtarrila	0,9	1,1	0,6	1,6
	Europar Batzordea	2011ko azaroa	0,7	1,7	0,6	2,1
Europar Batasuna	Europar Batzordea	2011ko azaroa	1,6	1,8	0,6	1,9
	NDF	2012ko urtarrila	1,6	1,7	-0,1	1,4
Eurogunea	The Economist	2012ko urtarrila	1,4	1,6	-0,5	-0,3
	Consensus Forecast	2011ko abendua	1,6	1,6	-0,1	0,4
	ELGE	2011ko azaroa	1,6	2,0	0,2	2,0
	NDF	2012ko urtarrila	1,6	1,6	-0,5	1,1
	Europar Batzordea	2011ko azaroa	1,5	1,6	0,5	1,8
Alemania	The Economist	2012ko urtarrila	3,0	3,0	0,1	0,2
	Consensus Forecast	2011ko abendua	3,0	2,9	0,5	0,8
	ELGE	2011ko azaroa	3,0	3,4	0,6	2,5
	NDF	2012ko urtarrila	3,0	2,7	0,3	1,3
	Europar Batzordea	2011ko azaroa	2,9	2,6	0,8	1,9
Frantzia	The Economist	2012ko urtarrila	1,6	1,6	-0,3	0,0
	Consensus Forecast	2011ko abendua	1,6	1,6	0,1	0,7
	ELGE	2011ko azaroa	1,6	2,2	0,3	2,1
	NDF	2012ko urtarrila	1,6	1,7	0,2	1,4
	Europar Batzordea	2011ko azaroa	1,6	1,8	0,6	2,0